

Kirola: saskibaloï denboraldiaren hasiera

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko irailak 24

205. zenb.

**Roneoko langileen
protestak**


**Maltzaga-Urbina
Bailarako
autopista**



MUX LIBAR



Irailak
30ean berriz
zabalik



Pizzak
Pasta freskoa
Eguneko menua



Bizkaia Etorbidea
ARRASATE



LORAMENDI BIROLAK

BEHERAPENETAN GAUDE

%50

APROBETXA AUKERA AZKENENGO ASTEA



- PRAKAK
- ZAPATILAK
- KAMISETAK
- TXANDALAK



13tik 30era itxita
oporrenatik

ZUHAITZ

jatetxea!



GATZAGAN



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
Iaruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundia
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Saillaren laguntza jaso du

Enpresa bat istean, zurea den zerbait erretzen da

Euskal Herriko herri txikiek, eta Arrasate ez da salbuespena, harriduraz begiratzen diote gainera datorkigun deskalabru industrialari, etengabe isten ari diren enpresengatik, horiek izan dira eta herri on saltsa eta bizia.

Arazo larri batek zulatzen ditu etorkizunaren sustarrak, garai baten aurreratuak ziren herriak, gaur egun itxitura eta emigratziora kondenatuak, mirariren bat gerta ezik, eta nekez gertatuko da halakorik.

Herriak eta herrixkak hutsik geratzen ari dira nekazaritzan konpetitibitatek ez dagoelako eta industriako garapenak ere aurrera darrai; gero eta langile gutxiago behar da produkzioan, teknologiararen eta ekonomiaren nazioartekotzearen efektu pila-tzailea dela eta.


Euskadin, orain urte gutxi arte industriako produkzioak BPGen zuen pisua %50etik gorakoa zen eta gaur ez da ia %35a ere; eta beharera doa teknologia, merkatuaren handitzea eta industrien konpetitibitatea direla eta. Gainbeheran dauden nekazalherrien irudia, abandonatutako herrixka osoena, gure herrirentzako ispilu izan daiteke enpresa eta enpresaririk ezean.

Testuinguru konpetitibo berrian, klase enpresariala zaintzen jakin duten herrialdeak aterako dira garaile, autoenpresen sorrerarako baldintza egokiak sortu eta hitz baten, arrakasta ekonomiko sostengatuaren oinarri gisa klase enpresarialaren garrantzi estrategikoa denboraz ikusten jakin izan dutenak.

Adituek diotenez, 2000 eta 2005 urteen artean, enplegu finkeko kopurua—eta beti da erlatiboa hori ere—ez da biztanleria aktiboaren %50a baino handiagoa izango eta gainerakoa lan partzial eta autoenpleguaren artean banatuko da; gestio ekonomikoa erresponsableago eta banatuagoa izango da. Enpresa handiek sormen eta ikerketa lana burutuko dute produkzio fisikokoa baino gehiago.

Eskala handiko gestio pertsonalizatuaren garaia dator eta formazio sistema, promozio estrategikoko foroan sustapena eta etorkizun ilunari begira inplikazio sozialeko sistemak garaiz martxan jartzen ez dituzten enpresek, eruki.

Arrasaten, gainera, ustezko enpresa-sortzaile kanpotarren esperientzia daukagu, salbatzaile gisa bertaratu eta enpresa eta langileen hondatzaile moduan ihes egin dutenak. Inoren diruarekin alkimista, euren poltsikoaren babesle (nahikoa da Portaloiko kartelak irakurtzea milioien eta exekutiboen dantzaz jabetzeko, emaitzen arabera ezerezaren gestioa



egiteko gutzia). Ederki dator hemen “balizko olak burdinarik ez” esaera zaharra eta hori parodiatur, honela esan genezake: zobe dela bertako olan errotutako enpresari bat, berezko izaera industrialetik lapurtutako lursaile batzuen joku espekulatuzailea eta dirua besterik maite ez duten ehun iheslari baino. Etxekoak astindu izanaren faktura izango da beharbada, ezezagun eta kanpotarrak gure gaitzen irtenbide izango direlakoan. Ederra ordaina!

Baina gure sindikatuak aipatu barik osatu barik geratzeko lirateke gogoeta hauek. Txoeko errebin-dikazioetan ondo diharduten arren, antza denez ahaztu egiten zaie diruaren gestioan garaiz eskua sartzea. Diru hori publikoa denez, sindikatuei ez zaie arrotz, langileen ordezkari diren aldetik, eta garaiz parte hartu behar lukete espekulatuzaile profesionalak herri oso bat ezer barik utzi aurretik. Amaierako manifestazioak ezer gutxitarako dira, bulegoetako bakardadean gestioatzen jakin ez dena kaleko zeremonia bidez isteko ez bada.

Azkenean, gure inkonszientziaren eta dinamika konpetitibo izugarriaren perzeptiorik ezaren biktima gara. Etorkizuna lehenaldiko erritmoan proiektatzen eta gure errealitatea faltsutzen lokartu gara, eta ona errealitate gordina erakutsi digun arte: etengabe ko langabezia eta karitate publikoaren babesean geratu diren familiak.

Ikasgai garratz eta garestia da gure herrirentzat, gizarteko sektoreen artean elkarbizitza eta analisarako fororik ezean, bakoitza bere jarrera ideologikoan edo negozioaren trintxeran babestuta dagoelarik.

JESUS LARRAÑAGA

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 - ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publikatzailea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Argutzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketzailea:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigaraga, Jesus Larranaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alfonso, Liher Larrea, Anitón del Campo, Sorginak, Kopl, Daniel Goikolea, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oriati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARRASATE PRESS
paper ekologikoan egiten da.

Azaleko argazkia: Arrasate

Izadi

Sendabelarrak, dietetika eta Kosmetika naturala.

Sendagile naturistaren kontsulta

Argaltze terapiak



Sebero Altube, 8 79 75 79
Kontzezino, 8 79 03 56

Garaiko perretxikoak urte guztian zehar!!

• Eguneko menua

• Asteburuetan menu berezia

• Paregabeko karta



RUTH GATZAGA

Olarte kantoia. Tfnoa: 79 59 57
ARRASATE

SOS Deba Bailara!

U ne honetan, 40 kilometrotako **Maltzaga-Urbina autopista** inposatu nahi digute (70.000 milioi). Etzi, "Y vasca" delakoa, **abiadura handiko tren**a sartzeko (600.000 milioi + 300 km./orduko). Nork ematen du gehiago?

Euro-desarrollismoa, euskal kapitalismoarekin batera, merkealdietan ipini dituzte behi euskaldunak eta baserritarrak, ondare naturala eta kulturala, herritarren bizi-kalitatea. Ei, hori bai! Bailararen txikizioa legitimatzeko, urrats "demokra-

tikoak" martxan jarri dituzte (N.I.P.-I.G.P.ak). Adi egon. (Jarraituko du).

ARRASATEAR BAT

Denok batera ... bietan jarrai

T xiki Otaegi eta beste 3 militante antifasizisten fusilamenduaren hemezortzigarren urteurrena betetzen denean, Koordinadora Abertzale Sozialistak, (KAS)ek aurten ere, Euskal Herriaren Independentziarengatik eroritako gudari guztien ohoretan omenaldia burutuko du.

Bizirik edo hildako gudari hauenganako bultzada eta errekonozimendua, Au-

todeterminazio eskubidea, Euskal Herriaren lurralde batasuna, askatasun demokratikoen edo benetako geure botere kompetentzialen lorpena ildo beretik doa, betiere ikuspegi Independentista eta Sozialista bate-tik.

Aurten Gudari Eguneko mezua "*Denok batera... bietan jarrai*" benetako muina ulertzeak, lortu beharreko helburuetan ondo kokatu behar gaitu: Gudari Eguna ez da egun bateko gauza, guretzat egun guztiek izan behar dute, eta borroka honetan aurrera jo behar dugu, jorkaera delegazionistetan erori gabe.

ARRASATEKO KAS

ALDIZKARIA	ORRIALDE	TIRADA	LAZKO LAGUNTZA	1992 PTA./ORRI	1993 DIRULAGUNTZA	1993 PTA./ORRI
...ETA KITTO! (B)	20	6.000	1.471.000	0,557	1.697.000	0,64
ARETXAGAZETA (B)	16	2.500	396.000	0,45	500.000	0,568
ARRANONDO (C)	20	3.500	4.000.000	5,68	1.986.000	4,51
ARRASATE PRESS (A)	36	6.300	3.000.000	0,305	2.209.800	0,2165
AZPEITIAN ZER? (C)	8	3.500	1.150.000	3,73	1.009.600	3,28
ERAZ (C)	16	3.000			1.920.000	3,63
HERRIA (A)	8	3.900			496.600	3,63
ELGOIBARREN (A)	20	2.500			1.956.400	0,354
GEU GAZTEIZ (A)	32	5.000			1.360.800	0,773
GALZAUNDI (C)	40	5.000			1.108.600	0,504
GOIERRITARRA (C)	32	3.000	1.274.000	1,206	1.264.800	1,20
ENE BADA! (A)	16	2.000	621.000	0,383	1.778.500	1,235
AKATZ (B)	20	2.300	3.500.000	3,84	3.002.900	2,97
BERRIGARA (A)	24	3.200	1.494.000	0,461	2.065.100	0,597
KARKARA (C)	24	800	218.000	1,65	539.000	0,638
NONTZEBARRI (B)	12	1.000	1.232.000	14	587.800	4,45
KONTZEJUPETIK (C)	36	3.600			1.173.700	0,82
SANTA MARIÑE (D)	16	900	505.000	19,72	287.700	4,983
DURANGO SWING (C)	24	6.000	2.800.000	2,545	643.500	0,406

- (A) - Astekaria
- (B) - Hamabostekaria
- (C) - Hilabetekaria
- (D) - Hiruhilabetekaria

ARKok irakurleari:

1993rako Eusko Jaurlaritzak euskarazko aldizkarietarako egindako dirulaguntza-deiadia dela eta, egindako banaketari buruz ARKoko Zuzendaritza Batzordeak bere desadostasuna azaldu nahi du publikoki; ARRASATE PRESSEk murrizketa handia izan du laguntzetan, iazkoarekin konparatuz eta ondoko taulan ageri denez, herrien artean ezberdintasun nabarmenak daude, irizpiderik gabe hartuak.



Autokarabanak alokatzen dira!

Tfnoak: 78 19 50 / 78 25 92 OÑATI

- HERGO eta HOBBY karabanak.
- RIVIERA auto-karabanak.
- SANGO erremolkeak.
- Kanping eta karabana guztientzako ordezkariak eta osagarriak.



Memesa
79 42 22

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Zer iruditzen zaizu tabernen ordutegia?




Unai Diez
Sokoako tabernaria
(20 urte)

Barruan nagoenean igual luzeegia dela, baina egun normaletan, larunbatetan, kanpoan nagoela, igual ondo egongo litzateke ordu erdi gehiago.



Eider Ozerinjauregi
Ikaslea (19 urte)

Ondo pentzetan jat, jende askok ez dau eukitten gogorik etxera fateko. Orduen, luzatzia hobeto.



Felix Lopez
Publizista (38 urte)

Ordutegia pixkat gehiago bada, hobeto, herriko giroa mantentzeko. Jendea edo herria kalean badago, problemarik gabe.



Ainhoa Uzkudun
Ikaslea (19 urte)

Goiz ixten dira. Jende pilo batek ez daki zer egin, Ostar-kura joan edo kanpora, eta Arrasaten ez dago ezer.




Roberto Mendi
Teknikaria (34 urte)

Ondo iruditzen zait luza-tzea, beti ere baldintza batzuk betetzen badituzte, goiko bizilagunak ez molestatzeko, eta kalean ez molestatzeko.



Juli Bedia
Etxekoandrea (75 urte)

Zabalik eukittie gauza bat da, eta ibilttie beste bat, jentie dibertidutie, bañe ulu baten kalien ibilli, haxe etxat gustetan.



Blas Madinabeitia
Jubilatua (76 urte)

Berandu ixten dira, nere-tako. Lehengo orduak nahikua dira. Zaratia kalian haundixa egoten da.



Jaione Guezmes
Bionako tabernaria
(31 urte)

Oso motza dela uste dut. Egon liteke apurtxo bat gehiago, eta taberna bakoitzak ikusiko du zer egin, itxi edo ez.

FANCY

Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

- HIZKUNTZ ARAZOAK
- HIZKETA ARAZOAK
- AHOTS ARAZOAK
- IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zorgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Igoalatoroa 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 71 44 52
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziazki 45 87 44

Udalzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) 79 05 81
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterraon 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 24
 Egunez: Ruiz. Maala.
 Gauez: Ruiz. Maala.

Larunbata 25
 Egunez: Morales. San Andres.
 Gauez: Morales. San Andres.

Igandea 26
 Egunez: Azkoaga. Ferrerías.
 Gauez: Azkoaga. Ferrerías.

Astelehena 27
 Egunez: Español. Iturriotz.
 Gauez: Español. Iturriotz.

Asteartea 28
 Egunez: Corcuera. Musakola
 Gauez: Corcuera. Musakola

Asteazkena 29
 Egunez: Inzar. Erguin.
 Gauez: Inzar. Erguin.

Osteguna 30
 Egunez: Amezua. Sta. Marina
 Gauez: Amezua. Sta. Marina

24 OSTIRALA

ZINEA

“Drácula”. 7etan eta 9,30tan.

DEBA GARAICO ONDAREAREN ZAINTEA

Kapirixo elkartearen helburuen azalpena. Arratsaldeko 7etan, Bergarako UNEDeko aretoan.

AUTOMOBIL FERIA

Urkulu tailerretan. Egun guztian 9ak arte.

GARAGARTZAKO JAIK.

Gaueko 12tan, “Lamina eta neanderthaldeko” gizonei ongietorria.

SAN MIGELAK ARETXABALETAN

Gaueko 10etan, Aretxabaletako Kirol Etxean. Beinkek antolatuta. Bertsolariak: Peñagarikano, Egaña, Maddlen Lujanbio eta Igor Elorza. Gai jartzailea, Jon Iñaki Izarzelai. Prezioa, 500 PTA.

ROCK KONTZERTUA

Planta Baja taldearekin. Elorrioko Kafe Ateneon.

KONTZERTUA GAZTETXEAN

“H2SO4” talde gasteiztarra eta “Acido sulfurico”, errioxarrak. Gaueko 9etan.

25 LARUNBATA

ZINEA

“Daniel el travieso”

SAN MIGELAK ARETXABALETAN


Goizean zehar, Gazta, Talo eta Sagardo dastaketa. Gaueko 11etatik aurrera, dantzaldia Laja eta Landakanda trikitilariekin.

GARAGARTZAKO JAIK

Berto saioa, auzoko enparantzan. Bertsolariak: Peñagarikano, Murua eta Egaña. Ondoren erromeria egongo da trikitilariekin.

KONTZERTUA GAZTETXEAN

“Julio Kageta” eta “Cut”, talde alemaniarra. Gaueko 9etan. 400 pza.



26 IGANDEA

ZINEA

“Daniel el travieso”

GIPUZKOAKO JUBILATU eta PENTSIODUNEN III.

IBILALDI NEURTUA
 Ibilaldia: Ojala-Zelai, Larriño, Zuhatzu, Urkulu, Arientza, Arkarazo eta Herriko Plaza.

GARAGARTZAKO JAIK

Arratsaldeko 6etan, erromeria “Txinparta” taldearekin.

SAN MIGELAK ARETXABALETAN

Eguerdiko ordubatean, kontzertua Aretxabaletako banda-rekin. Arratsaldean, dantzaldia Saltsamaltza taldearekin.

“EKIN” TALDEAREN IKASTAROK

“Ekin”, emakume taldeak honako ikastaro hauek antolatu ditu: eskulanak eta sukaldaritza. Eskulanetan, estainu lantzen, tarazea eta kristala tailatzen ikasiko da, beste zenbait gauzen artean. Irakaslea, Mila Akizu. Ikastaroa astelehenero emango da, eta urriaren 4ean hasiko da. Sukaldaritza ikastaroa berriz, Mari Tere Altunak emango du. Ikastaroa asteazkenetan emango da, eta urriaren 6an hasi.

GARAGARTZAKO JAIK

Ostiralean, arratsaldeko 7etan jaiari hasiera emango zaie, etxafleru eta Japongo bonben jaurtiketaz. 7,30etarako erromeria dago antolatua Arrasateko Trikitilariekin. Gaueko 11etan EGUZKI taldeak alaituriko dantzaldia. Bukatzeko 12etan Lamina eta Neanderthaldeko gizonei errezibimendua egingo zaie.

Larunbatean, goizeko 11etan, meza santua egingo da auzoko hildakoen alde, eta hau bukatzean haur jolasak. Arratsaldeko 5etan, Arin-Arin eta Fandango lehiaketa. Arratsaldeko 6,30etan bertso saioari emango zaio hasiera, bertan antuko dira Peñagarikano, Murua eta Egaña bertsolariak. Gaueko 10etan, artifiziosko suekin apaingudo dira zeruak, eta ondoren MAIXA-ITZIAR eta GARBINE taldeak dantzaldia eskeiniko du.

Igandean, eguerdiko 12etan, meza nagusia ospatuko da eta ondoren Vermout dantza egingo da TXINPARTA taldearekin. Eguerdiko 2,30tan bazkari herrikoia. Arratsaldeko 6etan berriz, erromeria TXINPARTA taldearekin.

Jaiak asteazkenean emaituko dira, arratsaldeko meza ondoren, Lunch-a egongo delarik auzoetxean. Bestalde, irailaren 24 eta 25ean, Garagartzako auzoetxean buzkentzak tomatearekin salgai egongo direla.

27 ASTELEHENA**ZINEA**

"Daniel el travieso"

ODOL EMATEA

Anbulategian. Arratsaldeko 4,30etatik, 8etara.

GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA

Gesalibar (alkatetzan)

DOKTRINARAKO IZENEMATEA

San Frantziskon. Arratsaldeko 5etatik 7etara.

MINTEGIA: UDALBATZAK ETA INGURUGIROA

Hasiera, goizeko 9,45etan. San Viator ikastolan. Gaia: Hiria: hirigintza eta ingurugiroa.

28 ASTEARTEA**ZINEA**

"Daniel el travieso"

ODOL EMATEA

Arrasateko ambulategian. Arratsaldeko 4,30etatik, 8etara.

GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA

Udalan, eskoletan 12etatik 12,30etara. Meatzerrekan 12,30etatik 13era.

DOKTRINARAKO IZENEMATEA

San Frantziskon, arratsaldeko 5etatik 7etara.

MINTEGIA: UDALBATZAK ETA INGURUGIROA

Gaia: Hiri hondakin solidoen gestioa: soluziobideen plangintza.

MANIFESTAZIOA

Sebero Altuben, 7,30tan. Arrasateko KASEk antolatuta.

29 ASTEAZKENA**ODOL EMATEA**

Anbulategian, 4,30etatik 8etara.

GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA

Garagartzan (alkatetzan)

MIKEL DEUNAREN EGUNA

Garagartzan. Arratsaldeko 6,30tan, meza auzoko patroiaren omenez.

MINTEGIA: UDALBATZAK ETA INGURUGIROA

Gaia: Hiri osasuntsuak, diagnostikoa eta estrategiak.

PINTURA ERAKUSKETA

Cesar Cimiano, "Txifiren" pintura erakusketa ikusgai, iganderarte. Iturriotz kaleko Harresi aretoan.

30 OSTEGUNA**GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA**

Bedoñan (alkatetzan), 12etatik ordubatera.

MINTEGIA: UDALBATZAK ETA INGURUGIROA

Gaia: Airearen-kutsatzeen kontrol sarea.

YOGA IKASTAROA

Arrasateko Yoga Elkarteak antolatuta. Hasiera irailaren 29an, eta bukaera azaroaren 29an. Klaseak astelehenero eta asteazkeneko emango dira. Goizez 9,45etan; arratsaldez 6,30 edo 8,30etan. Irakaslea Jose Luis Armendia izango da. Informazio gehiago nahi baduzu, dei egin 793576 telefonora

ERREALA IKUSTERA AUTO-BUSEZ

Peña Igoak antolatuta. Autobusak doain Anoetara. Partidurako txartela, Monten edo Aretxabaletako Gurean eros daiteke.

MASAIA IKASTAROA

Arrasateko Yoga Elkarteak antolatuta. Ikastaroa urriaren 9, 10, 11, eta 12 an emango da. Tokia, Aubixa baserria, Elgoibarren. Informazio gehiago nahi baduzu, dei egin 793576 telefonora.

UNEDeko IKASTAROK

EGA egiteko aukera, ostegun edo larunbatetan. Matrikula tasa, 25.500 PTA. Sakontze mailan, hizkuntzalaritza edo sakontze II. Eskolak larunbatetan. Matrikula tasa, 31.000 PTA.

**DEBA GARAIKO UDAL KIROL ZERBITZUAK****KIROL MATERIALA EUSKARATZEKO BEKA**

Eskegilea edozein izan daiteke. Helburua, futbol arloko oinarrizko liburu bat edo liburu baten zatia euskaratu. Bekaren diru zenbatekoa, 300.000 PTA. Lana egiteko epea, beka eskatzen denetik hasita, lau hilabetekoa izango da. Interesatuak Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzura bidali beharko dituzte eskabideak, urriaren 10a baino lehen.



Gero eta gutxiago falta da!!!

“Mendiradoan, buru apur bat badu, badaki igo dezakeen edo ez. Batzuk joan eta han egoten dira, hilda, eta horretarako hobe da ez joatea. Hori dela eta, ez dago prestatu beharrik, baina bai zaindu beharra, zer egiten duzun jakitea. Aurrez pentsatu eta horretara egon beharra dago. (...) Eskoriatzan orain urte pare bat hasi zen mendiko taldea eta jende gaztea gaude batez ere. Badirudi berriz ere mendirako zaletasuna pizten ari dela. Baina federatzea garestia da, lanean ari den jendeak badu ordaintzeko modua, baina lanik ez duenak... (...)”

Hainbat komunikabidetan jarri izan dute hamabost urteko neska bat zortzi milako mendi batetara joatea txarra zela, beste gazte batzuk horretara bultzatzen dituela eta horrela gertatzen direla gertatzen direnak. Nik uste dut norbera konsziente dela eta zer egin dezakeen eta zer ez asumituta duela. Eta gainera, hamabost urteko edozein gaztek ez du Himalayara joateko modurik eta!”

Naiara Ezeiza 93-9-17

egin

“Batzurentzat ekimen bikaina, beste batzurentzat beti kontu berarekin dabilzan pelma batzuk, zenbaitentzat beren iharduerak euskaraz ere egitera behar-tzen dituen talde bat, eta askorentzat lanerako, konpromezurako eta lagunartean merezi duen zerbaitetan aritzeko aukera. Horixe da AED arrasatearrentzat. Arrasaten orain hamar urte euskarak bizi zuen egoera ikusirik, hainbat euskaltzalek Arrasate Euskaldun Dezagun elkarte sortzeko ausardia izan zuten. (...) Guzti horren atzetik, beren hizkuntzaren alde lanean aritzeko, hasarretzeko eta pozteko prest dauden arrasatear ugariren lana izkutatzen da. Guztiek ere harro egoteko arrazoi frango dute.

Bego Zubia 93-9-22

egin


Zer dela eta Jo Ta Sue taldea?

Neurri handi batean, AEDek antolatzen dituen udalekue-tan, azken bi urte hauetan parte hartu izan duen jendeak osatzen dugu taldea. Urteak guretzat ere aurrera doaz eta iaz, udalekue-tan jarraitzeko nagusitxoak eta AE-Den sartzeko gazteegiak ginela konturatu ginen. Horregatik, 15etik 17ra bitarteko gazteontzat egokituriko taldea osatzea pentsatu genuen. Beraz, eta beti ere AED elkartearen inguruan hainbat ekintza burutu genituen, hala nola, gaitzaina-jana, buzzoneoak...

Azken hilabeteotan taldera lagun berriak hurbildu zaizkigu, institutoko ikasle batzuk. Adiskide hauek orain arte B ereduan egin dituzte euren ikasketak, eta guk aurtengo ikasturtea D ereduan egin dezaten animatu ditugu. Honetarako noski, laguntza eskeini diegu. Irailaren hasieran, udal euskaltegian euskara sakontzen ekin ziren. Bazkalordurako AEDra jotzen zuten, bertako elkartearen bazkaltzeko. Kafe ordurako, Jo Ta Sue-ko beste partaideok hurbiltzen ginen eta arratsaldean zer egin erabakitzen genuen. Azken finean guztion helburua, lagun hauei euskaraz bizitzen laguntzea da, horregatik irailaren zehar astebukaeretan ere bildu izan gara, norabait joateko.

Begi bistan dago taldea bizirik dagoela, eta ekintza berriak antolatuz aurrera egiteko asmoa dugu. Hori bai, beti ere gure helburuak zeintzuk diren ahaztu gabe. Hau da, euskararen ildoari jarraituz ekintza desberdinak egin, talde dinamika aberasgarria sortu, begirale izateko prestatu eta taldean euskal kontzientzia sortu.

Jo Ta Sueren trenea martxan dago. Lagun berriak ere iگو dira trenera. Hala ere, tokirik bada iگو nahi dutenentzat. Animo!



Iñaki Barrena

“Jo Ta Sue”-ko partaidea



URONDO

elektrizitatea

- * **Elektragaiak**
- * **Instalazioak**
- * **Automatismoak**
- * **Argiztapena**
- * **Bobinaketak**
- * **Proiektuak**

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE

Lapurreta saialdia

Alberto U.F., 23 urteko arrasatearra, joan den astean atxilotu zuen Ertzaintzak, ustez egun batzuk lehenago labain batekin lapurretan saiatu zelako Abadiñoako denda batean. Lapurrak ez zuen ezer eroan, dendariak beste labain bat atera eta ihesean jarri zuelako.



Eusko Ikaskuntzaren 75. urteurrena

Eusko Ikaskuntza, euskal kultura babestu eta ikertzearen helburuz sortutako erakundeak, 75 urte bete zituen joan den ostiralean, eta Oñatin ospatu zen urteurrena, bertan egindako ekitaldi batean. Kultura, ekonomia eta politikako pertsonaia ugari bildu ziren bertan, besteak beste, Jose Antonio Ardanza lehendakaria eta Juan Cruz Alli, Nafarroako lehendakaria. Euskal kulturaren defentsa eta ikerketaz arduratzeko helburuz jaio zen Eusko ikaskuntza erakundeak, eta azken aldi honetan arazo ekonomiko larrietan dago murgilduta. Oñatiko ekitaldian, instituzioek laguntzak agindu zituzten.

Harategian lapurretan

Arrasateko harategi batean 100.000 PTA, urdaiazkpiako eta beste produktu batzuk ostu omen zituen gazte bat atxilotu zuen Ertzaintzak joan den asteko asteazkenean. Gregorio B.V., 31 urteko arrasatearra, zulo txiki batetik sartu zen lapurretara harategira.

Max Centerreko jirabirak

Mondragon taldeak Barakaldon eraiki nahi duen Max Center zentro komertzialeko epaiketan jirabira gehiago izan dira aste honetan. Floreal Crespo PSOEko kide ohiak, Max Center-eko zuzendaria salatu du, Pedro Mendieta Aretxabaletako alkatea, Barakaldoko udala ustez sobornatu nahi izanagatik. Crespo eta EAJko Juan Maria Mendizabal dira auzian inplikaturako pertsonaia nagusiak, eta berengana doaz orain artean susmo gehienak, ustez MCC taldeari txantaia egin nahi izan baitzioten Max Cente-

ren obrak errazago egiteko. Pedro Mendieta eta Floreal Cresporen artean kareoa eskatu zuen HBko akuzazioa partikularrak, baina Maria Luisa Tejado epaileak atzera bota du eskakizuna.

AED Donostian

10. urteurrenerako AEDk antolatu dituen eginkizunak Donostian aurkeztu zituzten AEDko arduradunek asteazkenean. Aurkezpenean AEDko lehendakaria, Jose Mari Mujika; ARKokoa, Iñaki Aranburu; Xabier Zubizarreta alkatea, Mari Karmen

Garmendia Hizkuntz Politikarako idazkaria eta Garbiñe Egibar Diputazioko Kultura arduraduna izan ziren. "Honelako ekitaldiek esan nahi dute ez dela katea eten eta bide batez erakusten dute gauza garela kate begi bat gehiago gehitzeko", esan zuen Garmendiak urteurrena komentatuz.

Tabernen ordutegia

Taberna arrunten asteburuetako itxiera ordutegia goizeko 2etatik 2.30etara luzatzeko eskaera egin dio Arrasateko Udalak Eusko Jaurlaritzari. Udalak

tabernarien eskaera bati jarraituz egin du eskaera, nahiz eta dagoeneko ezekko bat iritsi den Gasteiztik.

Besaide eguna

Mendizale asko bildu ziren igandean Besaiden, 1953tik urtero gertatzen den moduan, mendian hildakoak omentzeko. Eguraldiaren laguntasunaz, trikitixa eta jai giroaz gain, meza izan zen eta hildakoen oroimena sentitu zen Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia bat egiten duten paraje horretan, aurten hamar izan baitira istripuz hildako euskal mendizaleak.

Desagertua hilda

Abuztutik desagertuta zegoen gizon baten gorpua aurkitu zuten asteartean Gesalibar auzoko mendibide batean. Hildakoak, Domingo C.E. 70 urtekoak, Santa Agedako ospitale psikiatrikotik ihesi egin zuen eta ordutik ez zegoen bere berririk. Heriotzaren zergatia argitu barik dago oraindik.

JAIOTZAK
• Julen Balanzategi Oruna, 13an.
• Idoia Rodriguez Jimenez, 15ean.
• Adrian del Pozo Murillo, 16an.
• Itziar Aranbarri Zuazubiskar, 16an.
HILDAKOAK
• Crescencio Gomez Saiz, 18an. 89 urte.
• Juan Jesus Jauregi Plasencia, 18an. 42 urte.
• Maria Juana Exposito Mondragon, 18an, 85 urte.
• Ponciano Casas Hernandez, 19an. 55 urte.

MENDI Taberna
Mendi da zure etxea
 Maalako Arrabala, 4
 Tfnoa: 79 20 54
 ARRASATE

INGELES:
KURTZO INTENSIBOAK NAGUSIENTZAT
PARLANCE
 Tfnoa: 77 06 83

LORATEGI
 Iturriotz, 7
 ARRASATE
 Tefnoa: 790467



ARRATE LANDA*

Oposaketak

Sistema honetan oposaketak kontetitibitasunarekin dauden lotuta zuzenki. Kontetitibitatearen arabera oposaketek profesional onenak aukeratzen omen dituzte, lanpostu konkretu baterako trebeenak diren langileak.

Nire ustetan, berriz, oposaketak ez dira tresna onena pertsona batek lan baterako duen ahalmena neurtzeko; agian epe motzerako oromena neurtuko dute, oposatzailearen patxada... baina ez haurrekin harreman onak izateko edo ikasketa prozesu logiko bat aurrera eramateko ahalemena.

Bestalde, sistema berak darama bere barnean kontrarian handiena. Egia balitz oposaketen bidez "balio" duen jendea aukeratzen dela, horrek esan nahi izango luke froga horiek pasatzen ez dituztenek ez dutela gaitasunik irakaskuntzan aritzeko. Baina ikusten dugunez, oposaketak gaindutu ez arren administrazioak berriro kontratatzen gaitu, baina orain urte

baterako, hilabete baterako edo egun gutxitarako; hau da, bere "beharren" arabera hartu eta botatzen gaitu, gutxiago ordainduz, oporretarako eskubidea moztuz... Beraz argi geratzen da administrazioak "onenak" aukeratzearen aitzakiaz, etekin ekonomiko garbiak ateratzen dituela.

Nire ustetan, magisteritza ikasketek eman beharko lukete irakaskuntzarako gai-

.....

"Aukeraketa egin den moduan eginik, jende pila baten esperantza, ilusio eta lanarekin jolastu da. Batzuk, azterketa egin baino lehenagotik ez zeukatelako inongo aukerarik"

tasuna, teoria eta praktika hobetu lotuz, eskoletan egite diren praktketan ikasleei autonomia gehiago emanaz etb.

Bukatzeko, eta oposaketa mota guztiak badute bere koxka, abuztuan izandakoek aipamen berezia merezi dute: — Gaiek zerikusi gutxi zuten Erreformaren filosofia eta norabideekin.

— Ez dira errespetatu, deialdietarako, erreklamazioetarako... legez markatutako epeak.

— Aukeraketa egin den moduan eginik, jende pila baten esperantza, ilusio eta lanarekin jolastu da. Batzuk, azterketa egin baino lehenagotik ez zeukatelako inongo aukerarik.

Eta "para kolmo" abuztuan izan direnez milaka langile oporrik gabe geratuko gara. Orain irailan "no apto" kalifikazioa jaso ondoren, txintxo-txintxo berriz lanera; hori bai, iaz baino baldintza okerragotan.

* IRAKASLEA

USTEAK USTE

ETA ORAIN ZER?

Azken egunotan bi manifestaldi nagusi izan dira. Lehena Iglesias jaunaren askatasuna eskatuz batera, indarkeriaren aurka. Bigarrena, gure Euskal Herri honek dituen arazoak buka daitezela, soluzioa ekar dezakeen negoziazio baten alde.

Ados nago indarkeria salatzearekin. Ordua da, bai, indarkeria alde batera uzteko. Baina... indarkeria denak.

Ados nago Sabaterrek esandakoarekin:

"Gogorak izan behar dugu intolerable diren egoerakin". Baina sartuko al du berak "intolerable" direnen artean gure herriaren eskubideak errespetatzen ez dituen konstituzioa?

Herri honek behin betiko soluzioa behar du. Eta aurrez, garbi hitzegin behar zaio. Ez da bidezkoa gure politikariak hauteskunde garaian Madrilek gure eskubideak errespetatzen ez dituela aritzea, hainbat eta bainbat buru bero-bero jartzea lortuz, eta hurrengo lau urtetan suhiltzaileen mangerak hartu eta buru horiek freskatzen ahalagintzea. Ezta Gasteizko Parlamentuan autodeterminatzeko dugun eskubidea onartu eta gero ez aplikatzea ere. Nola ulertu hau? Iritsi da ordua herriak zer nahi duen galdetzeko. Gaur egungo egoera ez da inoren gustokoa. Aurki dezagun behinbetiko irtenbidea hitzeginaz.

JOSE RAMON ELORTZA

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-
JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

Onduline TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako
materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE



Roneoko enpresa komitearen prentsaurreko bateratua asteazkenean.

Roneoko langileen ekintzak 74 lanposturen defentsan

Roneoko langileak protesta ekintzetan ari dira zuzendaritzak Arrasateko lantegiko 188 langileetatik 74 kaleratzeko espedientea aurkeztu duelako. Langileek enpresaren bideragarritasuna defenditzen dute, eta zuzendaritzari aurkeztutako plan alternatiboa besterik gabe atzera bota zutela salatu dute. Negoziaketetan, Roneoko arduradunak "erabat itxita egon dira, ez dute beren planaren letra bat bera ere aldatu", azaldu zuten enpresa komitean ordezkariak dituzten sindikatuek (ELA, LAB eta UGT) asteazkenean izandako prentsaurreko batean. Kaleratzeaz gain, bi urtez soldatak izoztea proposatzen du zuzendaritzak.

Une honetan 52 langile enplegu-erregulazioaren daude lantegian, eta horren ondorioz, eskariak ezin beteta dabilta produkzioan, sindikatuen esanetan. Horren argitan, sindikatuen ustez, "enpresak krisi koiuntura erabili nahi du, lanpostu finkoak kendu eta ebentualekin lan egiteko". Roneoren jabe den UCEN korporazioaren azken

asmoa lantegia saltzea dela uste dute langileen ordezkariak. Sindikatuek salatu duten beste puntu bat indemnitazioen dirua da: legeak markatzen dituen gutxienekoak proposatu ditu enpresak (langileko 2,5 milioi PTA, batz bestea), abenduan 6 milioiko batzuk eskaini zizkietenean enpresatik orduan joan zirenei.

Guzti honengatik protestan mobilizazio egutegi bat onartu zuten langileek, astelehenan egindako asanblada batean, aldeko 117 botorekin eta aurkako 16rekin. Ostiral honetan Donostiako UCENen egoitza okupatzeak ziren langileak, eta datorren asterako errepide mozketara, auto karabana eta manifestazioa (ostegun arratsaldean) konbokatuta dute. Urriaren 4tik aurrera, bost greba egun intermitente ere egingo dituzte lantegian.

Mobilizazioekin batera, Arrasateko alderdi politikoekin bilerak egingo dituzte langileak, eta hurrengo udal plenorako mozio bat ere aurkeztuko dute, elkartasuna eskatzeko.

Erregea Oñatira etor liteke

Espainiako Erregea, Juan Carlos I.ak, Deba Garaia bisitatu lezake urriaren 5ean edo 6an. Euskal Herrira egin behar duen bisitaldiaren programan, Eusko Ikaskuntzaren 75. urteurrenarekin lotutako ekitaldi bat izan lezake Oñatin, Bilboko egunkari baten arabera. Bisitaldia, dena den, ez dago guztiz konfirmatuta, ezta Oñatira etorriko den ala ez ere. Bi eguneko etorrera posiblea Bilboko enpresari elkarte baten gonbidapenaren ondorioa da. Bilboz gain, Gasteiz eta Oñati izango lirateke Espainiako Erregearen bisitaldiko puntu nagusiak.

Inbertsioak Deba Garaian

Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainetan (PYME) inbertsioak sustatzeko plangintzan, 2.975 milioi PTA inbertituko ditu Foru Aldundiak Deba Garaian, 118 proiektu desberdinetan. Diputazioaren iritziz, dugun egoera ekonomikoarekin bultzatu behar diren inbertsio handiek enpresetan inizatiba handia dagoela adierazten dute. Deba Garaian "beste eskualde gipuzkoar batzuetan baino dinamismo handiagoa" dagoela adierazi zuen Francisco Egeak, Diputazioeko ekonomia zuzendariak.

AKADEMIA

BASTIDA

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA


1963 **30** 1993
URTE

1993-94 IKASTARO EGITARAUA

- Informatika
- Kontabilitatea
- Takigrafía
- Mekanografía
- Klase Bereizgarriak
- Euskara

Helbide berria

Araba etorbidea, 3, 1º (ESKATU Eraikuntza) Arrasate Tel.: 79 32 16 - 79 77 13 Fax: 79 06 28



Birziklatzea, ingurugiro sailen arduetako bat gure udalerrietan.

Ingurugiro arloko profesionalen mintegia Arrasaten

Ingurugiroari buruzko mintegi bat egingo da datorren astean Arrasaten. 'Udalbatzak eta ingurugiroa' izenburupean, San Viator ikastolan egingo da mintegia eta urriaren 1.a arte iraungo du. Bizimodu urbanoaren eta ingurugiroaren arteko erlazio zaila izango da mintegiaren ardatza, eta profesional konkretu batzuei zuzentzen zaie batez ere: Bizigiro Osasuneko Teknikari Espezialistei.

Gehientsuenentzat ogibide ezezaguna da teknikari hauena, baina gaur egungo instituzioetan, ingurugiro eta osasun publiko arloetan, gero eta presentzia eta eginkizun garrantzitsuagoa daukate. Bi dira mintegi

honen helburu nagusiak: lehena akademikoa, eta bigarrena publizitarioa. Alde batetik ikaslea zenbait profesionalengana hurbilduz, jarduera prozesu hauek errezago uler ditzaten nahi da. Bestetik, profesional tekniko eta politikarien laguntzarekin, ahal den neurrian lanbidearen dimentsio soziala hobetu nahi da.

Astelehenetik ostiralera hainbat hitzaldi eta txosten izango dira mintegian. Horien artean: hiri-hondakin solidoen gestioa, eta soluziobideen plangintza; hiri osasuntsuen diagnostikoa eta estrategiak; airearen kutsaduraren kontrol sarea, edo Gipuzkoako Diputazioaren ingurugiro plangintza.

Altamira auzokoen ura

Altamira auzoko goikalderra ura bonbeatzeko sistemaren erabilera kostoak Udalak ordainduko ditu aurrerantean. Nahiko altuan dagoen auzo honetara, etxeetako ura ez da behar den ganoraz ailegatzen, eta bizilagunen iniziatibaz (eta beren dirutik) bonbeo sistema bat instalatuta daukate, ura goraino eroateko. Sistema hori beren kasa, eurek ordainduta jarri dute, baina Udalak argindarra behintzat ordaintzea erabaki du, bizilagunen eskariz, hurrengo hiru urteetan. Bestetik, Bedoña eta Uribarri auzoetara eta Muxibar eta Arteta baserrietara ur-konduzioak jartzeko lanak egingo ditu Udalak.

Kontratazio berriak

Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroan bi irakasle gehiago kontratatzeke Hezkuntza sailari egin zaion eskariarekin bat egin du Udalak. Bestetik, Monterronerako ere teknikari bat kontratatuko da urtebeterako.



IRAKASLE ESKOLA
ESKORIATZA
GIPUZKOA


Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:
1993 - 94 ikasturterako matrikulazio epea zabalik dagoela

ESPEZIALITATEAK

- Haur eskola
- Euskal Filologia
- Ingles Filologia

INFORMAZIOA
IRAKASLE ESKOLA
Tfnoa: 943/ 71 41 57

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



Arrasateko taxistak sistema berriaren jakinaren gainean daude dagoeneko.

Bono-taxia: elbarrituentzat garraio subentzionatua

Garraio bide publiko ezin balia daitezkeen elbarrituentzat, Arrasaten zehar edo herriz herri ibiltzeko aukera berri bat dago orain: bono-taxia. Ahuli gurgildunaz edo muletan laguntzaz ibili behar dutenek eska dezakete udaletxean, eta bonoak emango zaizkie bertan, taxia hartzen dutenean horiekin ordaintzako.

Laguntzak maila desberdinetakoak dira: aukli gurgilduna erabiltzen dutenentzat, 12.000 PTA hilean, muleta bi erabiltzen dutenentzat, 8.000 PTA hilean eta muleta bakarra erabili behar dutenentzat, 6.000 pezeta hilean. Hilero berriro daitezke bono-

taxiak, eta hilabete batean gastatu ez dutena, hurrengorako gehitu dezakete elbarrituek. Dagoeneko eskaera batzuk jaso dituzte udaletxean, eta bizpahiru onartu ere bai, baina beste baimen batzuk Gipuzkoako Diputazioarekin tramitatzeko ari dira udaletxetik, ziu-tagiri batzuk behar baitituztelako elbarrituek. Lehen bonoak urrian hasiko dira banatzen, seguru aski.

Arrasateko eta Deba Garaiko taxista guztiak jakinaren gainean daude dagoeneko, eta Oñatin euro-taxi bat ere prest dago, aukli gurgildunetarako espreski adaptatutako taxi bat, eskualdeko edozein erabiltzailerentzat gertu. Taxi honek ez du Oñatitiek honako etorrera kobratzen.

Zaparradak

Euria gogotik egin du aste honetan. Astelehen goizetik asteartekora metro karratuko 36 litro neurtu ziren Arrasaten, eta astertetik asteazkenera 39,5 litro. Ostegunera bitartean, 29 izan ziren, Egun euritsua goak ez dira arraroak, baina aste honetan bapateko zaparradetan kontzentrartu da euria.

Sexualitate tailerrak

HIES Ekimenak eta Gazte Zerbitzuak ni sexualitate tailer antolatuta dituzte urrirako: bata 24 urtetik gorakoentzat, gazteagoentzat bestea. Sexologo batek zuzendurik, egitarau irekia izango da, partehartzaileen intereseko gaien arabera.

Dirulaguntzak

Euskal Kulturaren Batzarreari, EKBri, 25.000 PTAko dirulaguntza eman dio Udalak, eta Helduen Heziketa Iraunkorreko zentroari 150.000 PTA, zenbait kultur ekintza bultzatuz, aste honetako Gobernu Batzordean erabaki denez.



- Umeentzako klaseak
- H.E.O.ko azterketarako prestatzeko klaseak
- Hizkuntzak ikasteko klaseak orokorrean

93-94 IKASTURTERAKO MATRIKULA
IREKITA DAGO !

Hurbil zaitez gure bulegoetara

ARRASATE: Araba Etorb., 4 Tfnok: 79 01 32 / 79 65 54
OÑATI: Olakua, 14 Tfnoa: 71 60 00



- LORATEGI
- BARATZA
- ZELAI
- BASO GARBIKETA

TRESNERIAKI

Gipuzkoa Etorbidea, 9
ARRASATE
Tfnoa: 79 11 78





Urtero bezela, joan zen igandean, garagartza-
rrek ohizko txangoa egin zuten. Aurtengoan Biz-
kaia aldera jo dute, Gernika eta Lekeitio herriak

bisitatzera. Argazkian ikus daitekeenez, akordeoi-
laria ere eraman zuten. Izan ere, dantza egiteak
bazkalosteko digestioa egiten laguntzen du.



Bedoña inguruko ortue-
tan jaiotzen da, bai,
jenero onik. Joan zen
larunbatean Bergaran,
Kontxita Berezibar,
Bedoñako Bioso base-
rikoari, barazki txapel-
ketan, 2. saria eman
zioten. Berarentzat izan
zen, gazta lehiaketako 4.
saria ere. Gizonari berriz,
Joxe Iturberi, gazta
lehiaketako 5. saria eman
zioten.

**Malu Pildain eta Juan Luis Arratibel,
uztailaren 7an ezkondu ziren. Zorionak!**



**ZARRAOA
EL ARCA DE NOE**

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

Es Lu

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE



SUDC-eko partaide eta kolaboratzaileek, urteroko txangoa egin zuten irailaren 11n. Errioxa aldera joan ziren, beraz ez da harritzekoa bodega bat bisitatzera joan zirela esatea. Eguna eztabaida eta guzti bukatu zuten. Batzuek autobusez 9etan itzuli nahi, eta beste batzuk berriz ordubatak aldera. Azkenean 9etan itzuli nahi zutenek irabazi zuten norgehiagoka.

IZEN PROPIOAK

● **Mariano Arrieta**, 40 urte, eskubaloï taldeko lehendakari berria da. Mariano arrasatearra da eta Lagun-Aron dago lanean.

● **Idoia Peñakobak**, 24 urte, enpresen gestioa izenburupean, master bat egin du Pensilvanian. Idoia, orain bi urte joan zen Pensilvaniara. Lehenengo enpresari ikasketak bukatu zituen, eta ondoren masterra egiten hasi zen. Orain Saiolanen dago, ikastaro batzuk egiten.

● **Ines Aldai Oruna**, 30 urte, San Frantzizko ikastolan klaseak ematen hasi da. Ines arrasatearra da eta kimikan lizentziatua. Maila ertainean kimikako klaseak emango ditu.



Argazkian ikusten dituzue-
nak, ez dira Euskadiko
Txirrindulari taldeko fitxaje
berriak. Urtero, sasoi
honetan, 17 lagun inguru

bildu eta Aramaixoko
Añibbarri baserrira
joaten dira bizikletaz.
Han babajana egiten
dute, eta ondoren mus


txapelketa. Ilunkara
alderako Arrasatera
bueltatzen dira. Hurrengo
goizean, bixamona
kentzeko, Besaidera.



PAZI-OLA SA
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94





Epeleko bidegurutzearen eta ibaiaren beste aldeko Etxezarreta basoaren artean loturako *escalextric* handi bat egin liteke.

Maltzaga-Urbinaren inguruko eztabaida martxan

Bailarako autopista

Luis Fernandez

Deba Bailarako autopistaren ideia aspalditik dator. Ia ahaztutako proiektu hura berreskuratatu egin du orain administrazioak. Obra horretarako lehen urratsa, herritarren arteko eztabaida saio berri bat izango da: Interbentzio Gune Partehartzaileak.

LES-Gizarteaz enpresak antolatutako ditu Interbentzio Gune Partehartzaile hauek, IGP edo erdaraz NIP direlakoak. 350 herritar hautatuko

dituzte zozketaz Deba Bailarako herrietan eta autopistak lotuko dituen hirietan. 60 milioi PTAtik gorako proiektu bat da, eta herritarrei hiru alderdi nagusi kontsultatuko zaizkie Maltzaga-Urbina ardatzaren inguruan, Gizarteaz-eko arduraun batek Arrasaten esplikatu zuen bezala:

- 1.— Bide hori egin behar den ala ez.
- 2.— Egitekotan, zer eratakioa izan behar den, autobide edo autopista.
- 3.— Trazaketa.

Hiru puntu hauek 14 gune desberdinetan eztabaidatuko dira urtariletik aurrera, eta maiatzerako publiko egingo

da emaitza. Emaitza ez da binkulantea izango, administrazioak ez du herritar horien erabakia betetzeko beharrik, baina Gizarteaz-eko soziologo-oen ustez, zaila izango zaie erakundeei IGPen emaitzen aurka joatea.

Hala ere, administrazioak (kasu honetan, Jaurlaritzza eta Gipuzkoa eta Arabako Foru Aldundiak) erabakita ditu goiko puntuetatik bi, 1.a eta 2.a: egin egitea da asmoa, eta autopista izango da, finantzatzeko beste aukerarik ez omen dagoenez.

“Administrazioak dirurik ez duenez epe labur edo ertainean, peajearen beharra inpo-

satzen da”, azaldu dio ARRASATE PRESSi Emilio de Franciscok, Eusko Jaurlaritzako errepide azpiegitur-tako arduradunak. “Bestela Ugaldebietako autobidea (Bizkaia eta Kantabria lotzen dituen) bezala egin liteke, urteak eta urteak obretan”. Eta peajearekin ere, Maltzagatik Arabarako trafikoak ez du nahikoa dirurik ematen. “Inbertsioa ez litzateke, inondik inora peajearekin beteko, ezta gutxieneko errentagarritasuna izateko ere; horregatik, gure aukera Maltzaga-Urbinakoa Bilbo-Behobiako peajearen luzapenarekin uztartzea da”. De Franciscok dioenez, obra

peajarekin ordaintzerik balego, garai bateko Maltzaga-Armiñon hura martxan legoke honezkerok.

UDALEN JARRERA

Proiektu hura geldiaraztean Bailarako udalek izandako jarrerak ere izan zuen zerikusia. Gobernuak autopista lehiaketa bitartez eman ondoren, Eurovias enpresak jatorrizko proiektua —garai hartarako nahiko zainduta zegoena— aldatu egin zuen, eta bailararentzat kaltegarriagoa zen bide merkeagoa proposatu zen. Udal guztiak kontra azaldu ziren eta polemika 1973-76 urteetan luzatu zen.

Gaur egun, Deba Bailarako udalek eskualdeko komunikabide eta loturak hobetzeko bat datoz, oro har. Deba Behean, Maltzaga-Urbina ardatza indartzea ezinbestekotzat jotzen dute, eta Deba Garaiko udalek bat egin zuten haiekin 1992an, instituzioei ardatz hori garatzea eskatzeko: Deba, Eibar, Bergara eta Arrasateko alkateek osatutako batzorde bat eratu zen eta instituzioekin negoziatzen hasi ziren. Gipuzkoako Diputazioan zalantzak zeuden, ea N-1 errepidea Etxegaraten bikoiztu, ala Maltzaga ardatza indartu behar zen. Azkenean, iazko udazkenean, bi lanak bultzatzea erabaki zen. Arabako Diputazioa eta Jaurlaritza bera Bailarako ardatzaren alde azaldu dira, autopistaren aukera defendituz.


IGPak		
HERRIA	HAUTATUAK*	GUNEAK
Donostia	48 (+2)	2
Arrasate	51 (+6)	6
Bergara	31 (+3)	
Antzuola	5	
Aramaio	9	
Oñati	22 (+2)	
Elgeta	6	
Aretxabaleta	15	
Eskoriatza	7 (+2)	
Gatzaga	1	
Elgoibar	14 (+1)	4
Soraluze	6	
Deba	6	
Eibar	40 (+2)	
Mendaro	2	
Mutriku	5 (+1)	
Ermua	20 (+2)	
Mallabia	1	
Gasteiz	28 (+2)	2
Legutio	7	
Arratzu	3	

* Parentesi artean, gune pilotorako hautatutako herritarrak. Gune piloto hori Arrasaten egingo diren 6etatik lehenen izango da.

Udalen eta alkateen aukera, ordea, autobidearena da, eta alderdi politiko guztiek ere, eskualde eta herri mailan behintzat, nahiago dute autobidea autopista baino. Bailara beste norabide

batean zeharkatuko duen Durango-Beasain ardatza egitea ere eskatzen dute.

Deba Bailarako proiektua Bilbo-Behobia autopistako auziarekin lotzeko modua ez dago argi oraindik. Bilbo-Behobia ez da Eusko Jaurlaritzaaren kompetentziakoa: 2003. urtean amaitzen zaio Europistas enpresari haren peajearen kontzesioa, eta ondoren, Madrilek, MOPT ministerioak, erabaki beharko du. "Auzi hau gobernu zentralarekin tratatu behar dugu, orain gobernu berria dagoenez, puntu honi berriro eutsi beharko diogu", dio De Franciscok. Edozein modutan, Jaurlaritzaaren gogoia ez da Bilbo-Behobia beste 20 urtez luzatzea: "Maltzagakoari 20 urte ematen bazaizkio, horrek dirauen artean luzatuko litzateke bestea". Hau da,



oraingoz, autopistaren peajea halakoa izan zitekeela azaldu du. Konpondu beharreko beste auzi zail bat trazaketarena da. Deba Bailara estua da toki askotan, eta injinerutza lan handia ekarriko luke autopista batek. Oraingoz, 16 trazaketa aipatu izan dira: ez dira 16 bide oso eta desberdin, tokian tokiko 16 alternatiba baizik. 16 bide horien informazio guztia IGPei emango die Jaurlaritzak, baina oraingoz ez dituzte publiko egin. "Alternatibak eskaintzeaz gain, gobernuak gomendio batzuk egingo ditu, estudio teknikoaren argitan, bide onenak izan daitezkeen markatzeko".

Trazaketarako garai bateko Maltzaga-Armiñon-eko ikerketak daude, eta horrekin batera, Gipuzkoako Diputazioak enkargatutako planoak.



Marra beltzez azaltzen diren autopistaren trazaketa posibleak gutxi gorabeherakoak dira, adierazgarriak, baina inolaz ere ez ofizialak. (Grafikoa: Txos-Luis).

Udalen eta alkateen aukera, ordea, autobidearena da, eta alderdi politiko guztiek ere, eskualde eta herri mailan behintzat, nahiago dute autobidea autopista baino. Bailara beste norabide


1995. aurrera, Maltzaga-Urbina autopistari 20 urteko kontzesioa emanez gero, Bilbo-Behobia 2015era luzatuko litzateke soilik.

HAMASEI TRAZAKETA

Kontzesioaren gorabeherak ere zehazteke daude. Urte kopurua markatzen den peajearen arabera izango da: peaje *biguna* (merkeagoa), urte gehiago. Administrazioak,

A

**lternatibarik
aurkeztu nahi
duenak, urrian
izango ditu
zabalik
horretarako
buzoiak.**



IGPen aurkezpena Arrasaten: alkatearen ondoan Gizarteaz-eko idazkari bat eta Luxio Ugarte.

Arrasateko kasuan, "dagoen sentsibilitatea ikusirik —De Franciscoren hitzetan—, Bergara-Arrasate tartean bi alternatiba aurkeztuko dira, Diputazioak proposatutakoa eta udalaren iradokizunekin erredaktatutakoa". Puntu zail hori, Epele eta San Prudentzio artekoa da: Diputazioak autobide baterako egindako planoetan, bidea txezarretako arboladitik pasako litzateke. Arrasateko Udalak, inguru horren balioa salbatu nahian, beste bide bat (autobidea) proposatu zuen 1991n, egun errepidea dagoen aldetik ibaiaren ondoan bidea zabaldua. Proposamen hori sakonago ikertuko du Jaurlearitzak.

Beste alternatiba bat, ez egitea da. Herriz herri IGPei buruz egin diren bileretan, iritzi kritikoak entzun izan dira, bailara nahikoa txikituta dagoela eta. Lan publiko handi honen egitasmoaz gain, hor dago, gainera, Euskal Y delakoa, abiadura handiko trenaren trazaketa, zenbait puntu gogor afektatuko dituen, hala nola Angiozar auzoa edo Lezetxikiko koba Arrasaten. Iritziak plazaratzeko garaia aurki hasiko da, urrian IGPe-tarako buzoiak irekitzearekin batera.

Alemaniko unibertsiitatean garatutako ideia da IGPea, eta Gizarteaz gabineteko bi soziologoren eskutik iritsi da Euskal Herrira. Hans Harms alemana eta Luxio Ugarte euskaldunak, Leitzarango auzia bizi-bizi zegoenean garatu zuten IGPe proiektua, eta Arartekoaren bitartez zenbait instituziori jakitera eman zieten. Harmsek ereduaren asmatzailearekin ikasi zuen Alemanian, eta Ugartek artekaritza prozesuetan parte hartu du Kanadan, bertako gobernuren eta indiarren artean. Gizarteaz-ekin, bi saio egin izan dituzte dagoeneko, Astigarraga eta Idizabalen, kirol instalazioak kokatzeko. Orain eskala handiagoko auzia dute, baina horrek ez die ardurtzen, edozein konponbeharreran aplika daitekeelako eredu, beren iritziz.

IGP edo Gune hauetan, 25 hiritar biltzen dira, bost egunez (ordaindu egingo diete), eta auziari buruzko ahalik eta informazio gehien jasotzen

dute, alternatiba desberdinak defenditu edo azalduko dituzten adituen ahotik. 25 horien artean, bosnaka eztabaidagune txikiagoak egingo dira egunez egun, eta azkenean, iritzi ahalik eta bateratuena emango dute. Prozesua martxan dago jada, lehen IGPa Arra-

satzen izango da (Arrasate Musikalen egoitzan seguru aski) urtarrilean, eta hasita dago partehartzaile hautaketa. Eztabaidarako alternatibarik aurkeztu nahi duenak azkar ibili beharko du, horretarako buzoiak urrian egongo baitira zabalik udaletxeetan.

Zer dira IGPak

EGUTEGIA

Irailak 13 - Abenduak 3 Urriak 1 - Urriak 30	Partehartzaile hautaketa. Buzoi publikoak, alternatiba, iradokizun, eta proposamenak biltzeko.
Azaroak 1 - Azaroak 15	Iradokizun guztiak bildurik, horien artean hautatuko da eta eztabaida programa bat erredaktatuko.
Azaroak 17	Iradokizun guztien egileekin eta Erakunde eta taldeekin bilera, eztabaida programa kontsentsuatzeko.
Abenduak 1 - Abenduak 31	Eztabaida programa finkaturik, parte hartuko duten ponente eta adituekin kontaktuko.
Urtarrilak 10 - Urtarrilak 14 Urtarrilak 24 - Martxoak 25	IGP pilotoa, Arrasaten. Gainerako 13 IGPak.
Apirilak 6	Behin behineko emaitzen txostena emango zaio sustatzaileari, Deba Bailarako Autobidea S.A. delakoari.
Maiatzak 6	Txosten edo diktamen definitiboa.

Hans Harms, IGPen arduradun Epaimahai amerikarren tankeran

Luis Fernandez

IGP edo Guneen antolakuntzan LES-Gizarteaz enpesak dihardu. Bi soziologo dira horren zuzendariak, Luxio Ugarte eta Hans Harms. Beren erudia bi herritan martxan jarri dute, emaitza onekin, beren iritziz, eta Deba Bailarako auzi honetan ere ondo aplikatu daiteke.

— **Idiazabal eta Astigarragan administrazioaren planek aurrera egin zuten?**

— Lehiaketa publikoa egon zen Idiazabalen (futbol zelaia egiteko) eta 4 edo 5 alternatiba agertu ziren kokapenerako eta instalaziorako. IGPen emaitzan, lehenbizi bestelako alternatiba guztiz berri bat aukeratu zuten, eta bigarrenik teknikoek planteatutako bat. Astigarragako proiektuan, kiroldegirako 5 edo 6 kokapen zeuden, baina herritarrek beste kokapen bat hautatu zuten eta horixe egitea erabaki zen Astigarragan. Idiazabalen oraindik ez dakigu zer egingo den, hobeto estudiatuak zeudelako beste kokapenak eta herritarren aukerari pegak jarri zizkioten teknikoek, eta aldiz, beren 2. aukerari alde onak ikusi zizkioten, proiektu ofizialetako bati. Orduan, agian 2. aukera egingo da, baina hori baino lehen, herritarrekin kontaktatuko da, dauden arazoak azalduko zaizkie eta ez dute era-


bakia aurreko guztiaren gainetik hartuko, baizik eta berriro ere herritarrek kontsultatuz.

— **Buzoiak urrian irekiko dira. Zer aurkez dezakete herritar arruntek buzoietara?**

— Bakoitzak nahi duen iradokizun, proposamen eta alternatibak aurkez ditzake. Baina planteamentu serioak izan behar dute, dokumentatuak. Ez du balio esateak, "hau txorakeria iruditzen zait eta aurka nago". Zergatia azaldu behar da. Argudio solidoak dituen edozeinek aurkez ditzake, eta afektatuek ere bai, bideak lurra ikutzen dizkiela, edo biadukto baten pean bizi behar dutela. Planteamendu horiek balio dute. Txosten serioak eskatzen ditugu, baina planteamendu bat defenditzeko gauza ez dela sentitzen duenak, beste norbait izenda dezake, adituren bat edo, bere izenean planteatzea berea. Adibidez, talde ekologistek bat egin dezakete, eta beren ikuspuntua planteatuko duen aditu bat gonbidatu.

— **Administrazioak, ordea, beti du informazio eta baliabide gehiago bere proposamenak aurkezteko. Ez dago desorekarik horretan?**

— Beno, horregatik zabalitzen ditugu buzoiak aurretiaz, jendeak gaia presta dezan, eta adituekin kontakta dezan. Guk geuk ere aditu neutralekin kontaktatuko



dugu, proiektuaren gaineko diktamena egin dezaten aditu neutralak gonbidatuko ditugu.

— **Guneetako jende bakaneta kritikatu egin izan da.**

— Modelo honen filosofia ulertu behar da. Guneetan parte hartzen duena ez dago bere herriaren interesak defenditzeko. Zerbait planteatu nahi duenak buzoien aurrean hau du eskura, bertara jo eta nahi duena esateko. Bere interesak defenditu edo zerbait azaldu nahi duenak, horixe du bidea. Ez Gunearen

barruan. Gunearen funtsa sistema judizial amerikarreko epaimahaiena da, ente neutrala da, eta alde eta kontrako argudio eta lekuko guztiak entzungo dituzte bertan, ondoren, informazio horren argitan, erabakitzeke. Guneetan ez da jarrerarik defenditzen, epaimahai dira. Gatzagan kexatu egin dira: "Bakarra izango da IGPetan eta eragin handia du autopistak hemen, gure lurra afektatuta daudelako, eta bakarrak ezin ditu gure interesak defenditu". Ez, kontua ez da hori. Udalak eta lur-jabeek buzoian egin behar dute Gatzagaren interesen alde. Baina IGPetan dagoena ez da interes horiek defenditzen egongo bertan.

● **"Maltzaga-Urbinaren gaineko diktamena egin dezaten aditu neutralak gonbidatuko ditugu"**



Txus Brizuelaren mutilak, denboraldia hasteko prest.

Saskibaloit taldea: kantxara gogoz baina babesle barik

Arrasate Saskibaloit taldea asteburu honetan hasten da 2. mailako lehiaketa ofizialean jokatzeko, hilabete bat entrenatzen aritu eta gero. Aurten, goragoko kategorietan (ACB eta 1. maila), ez dago talde gipuzkoarrik, eta beraz, litekeena da emaitzek lagundu ezker, Arrasate Gipuzkoako 1. taldea bilakatzea, 2. mailan beste hiru talde gipuzkoar gehiago daudenez: Askatuak, Atletico San Sebastian eta Ordizia.

Erronka horretarako de-xente berritu da taldea, baina oraindik badago zintzilik dagoen puntu bat: esponsorra. Felix Aialak, klubeko lehen-dakariak, babesle baten bila dihardu aspalditik, baina ora-

indik ez du Deba Garaiko saskibaloit talde adierazgarriena diruz lagundu nahi duen laguntzailerik. Dena den, gestioetan segitzen dute eta Aialak esperantza dauka oraingoz.

Iazko jokalarit multzoarekin alderatuta, taldea indartu egin dela esan daiteke. Bik utzi egin dute (Lander Errasti eta Angel Estevezek), eta bost gehitu dira: Andres Gutierrez atxabaltarra (iaz Askatuak ibili zen), Anjel Mari Iñarra eta Mikel Garitano bergarrak, Eneko Alvarez arrasatearra (iaz jubeniletan) eta Jabi Otxoa gasteiztarra (lesio batetatik kantxatik urrun iaz).

Beraz, hala geratu da taldea. Baseak: Aitor Saez de

Biteri, Jabi Otxoa, Raul Moreno. Hegalak: Jorge Fernandez, Iker Zubiria, Andres Gutierrez, Eneko Alvarez eta Mikel Garitano. Pibotak: Gerardo Mondragon, Jose Ramon Garai, Igor Urisabel eta Anjel Mari Iñarra. Behar izanez gero, hiru jubenil ere gehituko zaizkio taldeari: Sergio Bernal basea, Jagoba Gamarra hegala eta Ander Mallabiarrena pibota. Entrenatzailea, 4. urtez taldearen gidari gisa, Txus Brizuela gasteiztarra.

Larunbatean, ligandebuta, Gasteiz taldearen kantxan. Aurrendenboraldiko partiduetan bi galdu eta bi irabazi ditu Arrasatek, baina hemendik aurrera hasiko da benetakoa.

Mondrak ez daki galtzen

Denboraldian jokaturako lau partidu ofizialetan, Mondrak ez du batere galdu. Joan den larunbatean Hernaniri 1-3 irabazi ostean Ligan, asteazkenean Federazio Kopa berrian 0-0 egin zuten arrasatearrak Errenteriako Touring-en zelaian.

Federazio Kopa hau, Erregearen Kopa jokatzeko ez duten taldeentzako txapelketa berria da. Iaz 3. mailako talde bakoitzean 6. lehenen artean geratu ziren taldeei eman zaie jokatzeko aukera eta Euskal Elkarte Autonomoan lauk erabaki zuten hala egitea. Horien artean kanporaketak, hurrengoak Estatu mailako taldeekin jokatu beharko dira. Orain, Touring-en aurkako itzulera partidua dauka Mondrak, eta kontuz ibili beharko da talde zuri-morea, banako berdinketarekin Touring nagusituko litzakeelako (kanpoko golek gehiago balio dute Kopa honetan). Irabaziz gero, Real Union kanpoan utzi duen Amurrioren aurka izango du kanporaketa, eta hori gainditzeko badu, Espainian zehar bidaiatzea.

Ligari dagokionez, 3. dago Mondra, lau punturekin, eta Ondarroako Aurreraren bisita izango du igandean. Joan den larunbatean, partidu bikaina jokatu zuten Hernanin. Ikerren bi golek eta Aranburuzabalarenak erabakita utzi zuten partidua.

ALEMANA FRANTSESA INGLESA

93 - 94 IKASTURTEA

- Maila guztiak
- Umeak, gazteak, helduak, enpresak
- Goizez eta arratsaldez
- Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza eta Oñati



ZATOK GURE BULEGOETARA !

ARRASATE: Araba Etorb., 4
Tfnoak: 79 01 32 / 79 65 54
9etatik 1etara — 4etatik 8etara

OÑATI: Olakua, 14
Tfnoa: 71 60 00
4etatik 8etara

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

ARTOLA
KOMERTZIALA

Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE

Aretxabaletako Mila Urbanoa

Aretxabaletako II. Mila Urbanoa korrituko da ostiral honetako arratsaldeko 7.30etatik aurrera. Almen eta UDA klubak antolatuta, eliteko partaidetza bildu dute edizio honetarako. Korrikalari destakatuen artean Antonio Peula (Espainiako txapel-duna 3.000 hesidunetan), Patxi Hernandez (Euskadiko txapel-duna 400 metroetan) eta Iñaki Eskalona egongo dira. Hala ere, ez da puntako korrikalarietzat egindako froga soilik: guztira sei lasterketa izango dira. Infantiletan neskak 7.30etan, eta mutilak 7.40etan; kadeteetan neskak 7.50etan eta mutilak 8.00etan; junior neska-mutilak 8.10etan, seniorrak (gizonezko eta emakumezkoak) 8.20etan. Azken lasterketa honetan bi kategorია izango dira: korrikalari herrikoiak, eta eliteko gonbidatuak.



2. regionaleko Mondra

2. regionaleko Mondrak garaipen batekin ospatu zuen bere debuta joan den asteburuan (Mondra 3 - Gazteak 1). 2. regionaleko talde hau aurten sortu du Mondragón Futbol Taldeak, eta hortaz, Gipuzkoako kategoría baxuenean hasi da martxan. Kirol prestakuntzaren eta diruaren aldetik interesgarria zaiolako sortu du klubak talde berri hau. Batetik, jubenetako Ohorezko Ligako taldetik lehen taldera saltoa jo gabe, jokatzeko segi dezaket 18-19 urteko jokalariek aukera polita da. Bestetik, klubaren nahia talde berria lehenbailehen regional preferentera igotzea litzateke, eta horri esker, orain 3. mailan dabilen talde nagusia, 2.B mailan egoteko sostengu ekonomiko tinkoagoarekin egongo litzateke.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Hernani 1 - Mondra 3
 Federazio Kopa: Touring 0 - Mondra 0
 2. regionala: Mondra 3 - Gazteak 1
 Jubenulak, ohorezko maila: Elgoibar 1 - Mondra 4
Hurrengoak:
 3. maila: Mondra - Aurrera. Abxabalpe, igandea, 16.30.
 Federazio Kopa: Mondra - Touring, asteazkena, 16.30.
 2. regionala: Segura - Mondra.

Saskibaloia

Prestakuntzakoak:
 Arrasate 42 - Askatuak 64
 Arrasate 74 - Altsasu 72
Hurrengoak:
 2. maila: Gasteiz - Arrasate, Europa pabilioia, larunbata, 20.00.
 Kadeteak, mutilak: Arrasate A - Ordizia, Musakola, larunbata, 12.00.
 Arrasate B - Almen, Musakola, larunbata, 10.00.
 Kadeteak, neskak: Arrasate A - Janak Donostia, San Viator, larunbata, 12.00.


Pelota

Gipuzkoako klub artekoa. Senior binaka: Bergara 22 - Arrasate 9.
 Jubenilak binaka: Arrasate 11 - Azpetitia 22. Jub. banaka: Alkiza 7 - Arrasate 18. Junior binaka: Antzuola 12 - Arrasate 22. Jun. banaka: Azkoitia 18 - Arrasate 12. Kadeteak: Arrasate 22 - Bergara 8.
Hurrengoak:
 Larunbatean, 11.00etan, Iturripen: Jubenil banaka, senior banaka, senior binaka.



BETI SEGURU

- Etxerako arrisku-anitza
- Dendetarako arrisku-anitza
- Komunitateetara arrisku-anitza
- Industriadarako arrisku-anitza
- Automobilak
- Gidatzeko baimena kentzea
- Bidaiako asistentzia
- Istripuak
- Bizitza
- Jubilazio EPSU
- Subsidiak, gaisotasuna, istripuak
- Osasuna



MIKEL LASA, S.A.
 aseguru artekaritza

Maalako Errabala, 33 Etxabea. Tfnoa: 79 69 00 / 79 69 43. Fax: 77 10 74 ARRASATE

Biodibertsitatea beheraka

Ingurugiroarekiko Rio de Janeiroko topaketa famatuaren ostean, biodibertsitatea arriskuan dagoela ez du ia inork zalantzan jartzen. Gurekin batera, beste mota askotako miloika izakik osatzen dute mundu honetako bizidunen populazioa. Izaki bizidunen aberastasun honi **biodebertsitatea** deritzogu. Rio de Janeiroan bildutako espertoek azaldu zuten bezala, murrizketa izugarria jasaten ari dira Lurrean bizi diren izakiak. Bizi-toki berezien desagertzea, luraren ongarrizketak, luraren erabileraren aldaketak eta inpakto desberdinak dira, besteak beste, murrizketa honen arrazoi nagusiak.

Izakien aberastasun hau mantentzea garrantzizkoa dela ikusi arren, honetaz ohartzen ez garela pentsa daiteke. Urtero, 150.000 espezie desagertzen doaz, han eta hemen autopista edota urtegiak eraikitzen ditugu, inoiz esistitu ez diren sustantziak ingurura botatzen ditugu... zerrenda amai ezina da. Horrela, kutsadura eta neurri gabeko garapenak, izaki bizidunen desagertzea dakarkigu ondorio zuzen bezala.

Biodibertsitatea mantentzeko arrazoiak, arlo desberdinetatik sortzen dira:

a). Arlo etikoa. Gizakiok "goi mailako" espezie garenez, guri tokatzen zaigu biodibertsitatea mantentzea. Honek, gure esku dagoena egitea eskatzen digu, hurrengo belaunaldiak, guk ezagutu dugun bezalako inguruz disfrutatzeko aukera izan dezaten.

b). Arlo estetikoa. Espezie bakoitza altxor bat da. Guk egin dezakegun artelan onenak baino askoz ere gehiago balio du. Edonork daki, txori, arrain tropikal, tximeleta, lore edo abere basatiak ederrak direla, intsektu txikiak ere abioi aurreratuena baino politagoa eta perfektuagoa da.

c). Arlo ekonomiko zuzenak. Naturatik guretako ateratzen ditugu elikagai eta gaiak: garia, artoa, arrosa, arrainak, haragia, egurra, burdina, olioak, gai kimikoak, sendabelarrak... Guzti hauek, biodibertsitateari esker lortzen ditugu.

d). Arlo ekonomiko zeharkakoak. Bizidunentzat, behar ditugun elikagaiak sortzeko, derrigorrezkoa da eguzkiko energia aprobetxatzea. Energia hau aprobetxatzeko gai diren bizidun bakarrak, belar, zuhaitz, alga eta beste izaki txiki batzuk dira. Beraz, hauen desagertzea, besteena ekarriko luke, gurea barne.

Inguruneak dituen arazo orokor larrienetaz kezkatzea beharrezkoa da. Gaurko egoera aldatzeko ez da nahikoa paperak kontenedoreetara botatzea. Gurekin bizi diren espeziekiko erlazioak aldatzera jo behar dugu. Honek, seguraski, ohizkoak ditugun sakrifizio gehixeago hartzea eskatuko digu, besteak beste, bizimoduak apaltxoago eta kontsumo gutxiagokoak.

MIKEL OLABE

Zerbait egin dezakegu dibertsitatea mantentzeko?

Erantzuna baietzkoa izan beharko litzateke, noski, gure esku baitago hainbat ohitura kaltegarri baztertu eta berri batzuk hartzea. Hona hemen horretarako aholku batzuk:

1. Animaliak, ez dira apaingarriak, izaki bizidunak baizik. Harrapatutako bost animalietatik bat bakarrik heltzen da bizirik salmenta-tokietara, besteak, bidean hiltzen dira. Gaur egun, legetik kanpo dagoen animalia trafikoa, milaka espezie desberdinen desagertzea azaleratzen doa. Beraz, ez erosi animaliarik, bere legezko jatorria behar bezala ziurtaturik ez dagoen bitartean.

2. Gure Lurreko oihan tropikalak, dibertsitate biologikoaren adierazgarri nagusienak dira. Bertan, hektarea batean, dozenaka zuhaitz desberdin aurki daitezke, ehundaka ugaztun eta hegazti, eta milaka intsektu desberdin. Baso hauetatik hartzen dituzte herri aurreratuena etxeetan, guk barne, apaingarri bezala erabiliko diren haltzariak egiteko egurra. Gaur egun, komertzio hau kontrolezina da, eta kaltetuak bertako herritarrak dira. Beraz, haltzariak modu arrazional batean lortua izan denaren ziurtagiria eskatu; ez badauka, ez erosi.

3. Gaur egun etxe batean akuario bat montatzea ez da batere zaila, garestia baizik. Hauetarako erabiltzen diren arrainak, itsas tropikaletik ekartzen dira, errekakoak baino deigarriagoak direlako. Guztira, itsas tropikaletan harrapatutako arrainen 3/4renak urtebete ere ez dute irauten akuariotan. Beraz, ez erabili arrain tropikalak zure akuarioa "alegratzeko".

4. Era guztietako larruen salmenta gaur egungo merkatu aberatsenetariko bat da, milaka animalia desagertzen direlarik. Larru hauek, apaingarri edota jantzi bezala erabiltzen dira. Egon badaude larru hauen funtzioa betetzen duten beste materiale batzuk. Beraz, ez erosi animaliei zuzenean kenduriko larruak.

Ziur gaude zuetariko askok aurretik aipatutako ekintzekiko kontzientzia duzuela. Hala ere, badaugu gure inguruan arazo honetaz jabetzen ez den jende mordo bat, batez ere gai hauek irakurtzen ez dituztenak. Horregatik, aholku hauek guztiongan direlakoan dik horiei ailegatuko gaude. Hala bedi!

- Irakasle natiboak, profesionalak, titulu eta esperientziadunak

- Maila guztiak: umeak, gazteak eta nagusiak

- Enpresentzako zerbitzuak: itzulpenak, interpretariak, e.a.



- Ordutegia zure beharren arabera jarriko da (larunbat goizak eta ordutegi bereziak errele-bokoentzat)

- Kalitatezko eskolak

IDIOMASTER

**HIZKUNTZEKIN ZERIKUSIRIK DUENAK
GUREKIN DU ZERIKUSIA.**

NON GAUDEN?

Ferrerias, 44 • Tfnoa: 79 07 84 • ARRASATE

MANGO

Postas, 5 eta 5 bis GASTEIZ
Tfnoa: (945) 23 04 48

MINTEGIA: Udalbatzak eta Ingurugiroa

San Viator Ikastolako areto nagusian

**E
g
i
t
a
r
a
u
a**

Irailak 27, astelehena:

Gaia: **HIRIA: HIRIGINTZA ETA INGURUGIROA**

Irailak 28, asteartea:

Gaia: **H.H.S.-EN GESTIOA: SOLUZIOBIDEEN
PLANGINTZA**

Irailak 29, asteazkena:

Gaia: **HIRI OSASUNTUAK: DIAGNOSTIKOA
ETA ESTRATEGIAK**

Irailak 30, Osteguna:

Gaia: **AIREAREN KUTSADURARAKO KONTROL
SAREA**

Urriak 1, Ostirala:

Gaia: **DIPUTAZIOAREN PLANGINTZA
INGURUGIROARI BURUZ**

Informazio gehiago: San Viator Ikastolan
Oharra: Saio guztiak goizeko 10etan hasiko dira.

DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA



SAN VIATOR IKASTOLA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



BIZIGIRO OSASUNeko III MODULOA



endizaleak ugari dira eta izan dira gure herrian, eta joan den astean jende asko bezala, Besaide inguruetan izan ei ziren erretratuko hauek ere 1954-55ean seguru ez dakigu. **Manuel Zubizarreta "Tanpoko"**, **Jose Mari Ormaetxea**, **Joxe Urrutia** eta **Joxe Zeziaga "Hermoso"** dira zutik daudenak. Makurtuta **Gregorio Errasti** eta **Jesus Barrutia** eta lurrean jarrita **Briones** ahizpak, Mariano Briones medikuaren alabak.

Sasoi hartan mendiak egiteagatik medaila edo domina bat ematen zen, eta egun horretan, paparrean ageri dutenez, 20 mendien domina banatu zen. Urtean 20 mendi ezberdin egiteagatik ematen zuen oroigarri hori herriko mendi taldeak. Federazioak, berriz, bost urtean 100 mendi egiteagatik ematen zuen beste bat. Erretratu honetan apenas dago sari preziatu hori jaso duenik. Domina ematea urtero mendi tontor ezberdin batean egiten ei zen.

M

Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Arreta handiko
sukaldea
Giro abegikorra

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Pisua topatzeko pertsona behar da edo etxebizitza baten gela libre bat.** Dei egin goizeko 9etatik 2etara 79 16 57 tfnora. Natxo.
- **Neska bat behar da Bilbon pisua osatzeko.** Tfnoa: (94) 4 43 55 83.
- **Pisu bat salgai Calaorran.** 75 m²akoa. Erdialdekoa, eguzkitsua, ondo jantzia. Ganbara, trasteleku eta goteleduna. 4.550.000. Tfnoa: 79 64 50.
- **Bi ohedun logela eskaintzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Torremolinosen (Malagan) apartamendu-estudioa salgai.** Jantzia, erdialdean, moderna, 2. pisua; igerilekua eta inguruetan saloi handiak ere baditu. Tfnoa: 79 64 50.
- **Iruñean pisua behar baduzu,** guk hiru lagunentzako lekua dugu. Tfnoa: 79 51 04. Leire.
- **Garajea alokagai behar dut.** Eskola Politeknikotik gertu. Tfnoa: (94) 4 62 07 39. Astehelenetik ostiralera. Gaez deitu. Maribel.
- **Lehenengo mailako arkitektureko** bi kasle, mutil baten bila dabilta Antiguon pisu bat betetzeko. Tfnoa: 79 50 45.
- **Donostian pisu bat osatzeko** bi neska behar dira. Tfnoa: 77 05 88. Esther (eguerdian).
- **Pisua alokatzen da Donostian,** irakasle, ikasale edo enplegatuei. Merke. Tfnoa: 79 35 13.
- **Bi neska inglesa gara** eta urritik uztailearte, pisu bat alokatuko genuke. Tfnoa: 79 90 36 (Rene-gatik galdetu).
- **Garaje bat edo leku seguru** bat behar dut motorra gordetzeko. Tfnoa: 79 90 36. Richard.

- **Donostian pisu bat osatzeko bi neska** behar dira. Tfnoa: 77 05 88. Esther (eguerdian).
- **Neska bat behar da ikasle pisu** konpartitzeko Deustun. Tfnoa: 79 49 69. Jende jatorra. Ana.
- **Bi irakasle behar ditugu Iruñean,** Unibertsitate ondoan dagoen pisu bat betetzeko. Interesatuak deitu 55 75 88 tfnora. Izaskun.
- **Bakarreko gela alokatzen da** Arrasaten. Pisua erdialdean. Tfnoa: 79 09 11.
- **Pisua alokatzen da Munarren.** Jantzia. Tfnoa: 79 77 85.
- **Bikote gazte batek pisua behar du** alogeran Arrasaten. Tfnoa: 77 08 55. Bulego orduetan deitu.

Lana

- **Klase partikularrak ematen dira.** O.H.O. ko maila guztiak. Tfnoa: 77 04 98.
- **Espereziadun neska umeak zaindu** eta etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 88 29. Julia.
- **Ingelesezko klaseak.** Maila guztiak. Talde txikiak. Tfnoa: 79 09 11. Garbiñe.
- **O.H.O. ko klase partikularrak emango** nituzke. Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- **Klase partikularrak ematen dira:** O.H.O. eta R.E.M. Edozein gai. Tfnoa: 79 31 48. Maider.
- **Reflexologoa behar da,** 28 urtetik gorakoa, taldeetan lan egiteko. Tfnoa: 88 43 40. Goizez.
- **Zuberotar batek frantses klase partikularrak** ematen ditu (Frantzian eta Hizkuntz Eskola Ofizialean diplomatu. Lan-orduetan deitu. 79 20 24. Renee.

- **Emakume behar da umeak zaintzeko.** Tfnoa: 79 89 93. M^o Eugenia.

Salerosketak

- **SPECTRUM markako ordenagailua** salgai. 16 jokurekin. 15.000 PTA.. Tfnoa: 79 93 91. Joseba.
- **Uberan taberna salgai.** Erreztasan handiak. Tfnoa: 76 25 99.
- **Lehen mailako zuzenbide liburuak salgai** (Deuston erabiltzen direnak). Erabilgarriak. Tfnoa: 79 19 77. Kristina.
- **Derbi FDS (74 c.c.) salgai.** Egoera oso onean.
- **Citroen 2 cv. Charleston salgai.** Pintatu berria. SS-O. 110.000 Km. 90.000 PTA. Tfnoa: (945) 28 79 40. Gaez.

Denetarik

- **Datorren ikasturtean Bilbora egunero** arratsaldez joateko interesatuek dei egin 77 08 32 tfnora.
- **Datorren ikasturtean Gazteizera egunero** goizez joateko interesatuek dei egin 79 58 66 Tfnoa.
- **Gizon batek kartera** diru apur batekin aurkitu du. Tfnoa: 79 05 19.
- **Astero Sarrikora joateko** kotxe baten bila nabil. Lekua izanez gero deitu 79 87 36 tfnora.
- **Llavero bat galdu da, 4 giltzekin.** Eskola Profesionaletik Gazteluondorako bidean. Tfnoa: 79 39 42.
- **S. Judas Tadeo.** Eskarrik sako. F. G.

Aste Gazte

Bilborako autobusak

• Arrasateko ikasle talde bat "Aixola" ikasle elkar-tearen bazkide egin da, Arrasateetik Bilbora egunero autobusak antolatzeke. Izenak Gazte Bulegoan.

Sexualitate tailerrak

• 24 urtetik gorako gazteei zuzendutako tailerrak urritik aurrera burutzekoak dira. HIES Ekimen eta Gazte Zerbitzuak elkarlanean antolatutak. Interesatua bazauda, eman izena lehen bait

lehen. Matrikula doan da.

Bekak

• 93-94 ikasturtean Eibarko Lan-Unibertsitateko Egoitzan bizitzeko dirulaguntzak, ondoko ikastetxeren batetan ikasten ari direnentzat: Eibarko Lan-Unib., Armagintza-Eskolan edo Elgoibarko LHko Institutoan. Epea: urriak 15.

Lana

• Gasteizko Udalak 22 udaltzain eta 13 suhiltzaile

kontratatzeke deialdiak egin ditu. Izen emateko epea: irailak 30.

Ikastaroak

• Larrua lantzeko ikastaroa, hastapen maila. Urritik abendura, astearte eta ostegunetan, 6etatik 8etara. Matrikula 2000 (1000 ikasle eta langabetuentzat). Plaza mugatuak.

• Fraisoro Nekazal Eskolaren 2. seihilabetealdia: sagardogintza, tipografi jasoaketak eta nekazal neurketak, segurantzak eta higieena nekazal lanetan, abelzantzak, esne produkzioa,...

"Ni amnesiko xamarra naiz, eta ez ditut oso gogoan eskola garaiko urteak. Baina erotuta ere ez nintzateke eskolara bueltatuko."

GARGIÑE UBEDA
(EGUNKARIKO KOLABORATZAILEA)



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

ZER NAHIAGO?

Mari Cruz Kortabarria Arrasate Pentsuak dendakoa

- Zein da gehien atsegin duzun aberea? Katua, mantsoena eta politena da.
- Eta gutxien atsegin duzuna? Xagua, higuina ematen dit.
- Gustokoen duzun kolonia? Berdin zait, ez dut preferentziarik.
- Etxean baduzu abererik? Bai; loro bat, txakur bat eta katu bat.
- Dendako abererik garestiena? Loroa, 80.000 PTA. balio du gutxi gora behera.
- Zer gozaltzen duzu egunero? Esnea eta frutaren bat.
- Marixutan jantziko zara? Segun eta zein ordutan irtetzen dudanhemendik, bestela bai.
- Inoiz egin dizuten oparirik politena? Nire katua, "Baltz".
- Katu txuriak edo beltzak? Beltzak.
- Noizbait hegazkinez bidaiarik egin duzu? Bai, abionetan.



BERTSOAK

1
Maritxuk asmatu du
bakearen giltza
belarrira xuabe
hala zaigu mintza:
"ardo gorria ala
txanpanaren bitza,
ez legoke gurean
hain giro bortitza,
txikiteo gehiago
egingo balitza."

2
Bahiturik egon arren
hain zara aparta,
Julio beste atera
ohi duzu zarata.
Parean jartzen zaitut
ez asko kostata,
jazteko prenda ere
antzekoa da ta
lazo urdina edo
lepoko korbata.

JON IÑAKI IZARZELAIA



DEBA
GARAIA

ARRASATE EIBAR ELGOIBAR

Maala Arrabala, 31 . Behea.
Tfnoa: 77 01 12

HELBIDE BERRIAN AUKERA BERRIAK

● Eros dezaket pisu bat hirierdian,
lasaia, eguzkitsua, bistekin, 3 logelare-
kin, eta trasteleku eta guzti hornitua, 1,5
miloi pezeta eta 45.000 PTA. hilero
baldin ba dauzkat ?

Bai horixe!!

"EKIN" enakune taldea


ESKULANAK

- PINTURA RUSTIKOA
- ESTAIMUA LANTZEA
- KRISTAL TAILATUA
- TARAZEA

EMALEA:
MILA AKIZU

HASIERA:
URRIAREN 4an
ASTELEHENERO
JARRAITZEKO

SUKALDARITZA



EMALEA:
MARI TERE AIZUA

HASIERA:
URRIAREN 6an,
azteazkenean jarraitzeko
abenduaren 15 arte

OHARRA: SUKALDARITZA
IKASTAROAN EGITEN DIREN
PLATOAK ZOTZ EGINGO DIRA

Hitzaldia

"Hezi zeure burua osasunerako"

EMALEA:
Ana Arrieta
Medikua

EGUNA:
Urriaren 19an

ORDUA: ARRATSALDEKO 3,30etan / TOKIA: AED elkartea

ALAITU
ZURE
BEGIAK
EUSTURAK
2.550 PTAN




Hemen daude. MULTIOPTICASEk bakarrik dituen eustura berriak, begi onaren duenarentzat. Kalitate frogatua eta diseinu ikusgarria. Eta prezioa: betikoa! 2.550 Pta.

JARRAÑAGA OPTIKAREN garantiarekin eta MULTIOPTICASen zerbitzua: 250 optika baino gehiago beti zuri begira.



ibargaray, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Baradian Enparantza. s/n - ORDIZIA

MULTIOPTICAS
Betri Zuri Begira



Alecop-eko instalazioak.

Lehiaketa "Teknologikoa" Alecop-en

"La Tecnologia al descubierto" izenburupean, Alecop-ek lehiaketa bitxi bat antolatu du. Bereziki, kultura teknologikoa maite duen oro-

ri zuzendua dago eta egunero erabiltzen ditugun aparatuen funtzionamendu sinplea jendeari ulertaraztea du helburutzat. Lehiaketa, izozgailu, in-

presora, ospitale batetako kirofanoa, etxeko mikro-uhin labea edo eta egunero erabiltzen dugun aparatuen baten funtzionamen-

dua azalduko duen tramankulu baten eraikuntzan datza.

Teknologia, tekniko edo ta kableen artean ibiltzea gustoko duten guztiek, aukera polita dute euren lanak eta trebetasunak erakutsi ahal izateko. Sariak ez dira batere motelak: Irabazleak 250.000 PTako saria jasoko du, bigarrenak 125.000 PTakoa, hirugarrenak 75.000 PTA etxeratuko ditu eta laugarrenak 50.000. Sari guzti hauetaz gain, 10.000 PTako 25 akzesit banatuko dira. Lehiaketa hau interesatzen bazaizu, kontutan euki oraindik denboraz zabiltzala, tramankuluak entregatzeko epea 1994ko urtarrilaren 31 da eta. Aparatuarekin batera, berau nola egin duzun azaltzen duen informe bat ere aurkeztu beharko duzu. Informazio gehiagotarako, 79-50-11 telefonora dei egin, baina batez ere, animatu zaitez eta parte hartu!

DATORREN ASTEAN BERRIZ IREKIKO DUGU

ZABALETA

Lurrindegia

Kosmetikan:

- Clinique
- Lancome
- Ultima 2
- Revlon
- Juvena

Lurrinetan:

Marka berri asko,
eta guztiak
oso ospetsuak

Bisuterian:

Liluratuko
zaituen
bisuteria fina

Oparietan:


Oparitzeko
artikuluetan
aukera zabala
- Larrua
- Osagarriak

Maisu Arano, 2 PORTALOIAN

• ESAERA ZAHARRA •

“Balizko olak burdinarik ez”

• JEROGLIFIKOA •



Zenbatetan huts egin du?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10					11	12
13				14		
15				16		
17			18			19
20						

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Lurrin. 6. Ikasle Aber-tzaleak. 8. Mondragon C. F. ren lagunarteko izena. 10. Urrixa. 11. Zenbakien zerrendan lehe-na. 13. Masaila. 15. Betekada. 16. Beldurti. 17. Kristo ondokoren laburdura. 18. Luki. 20. Paga-tu.

Bertikalak 1. Umegorri. 2. Oharkor. 3. Mihilu. Lore horidun landarea. 4. Ilar bizkaie-raz. 5. (Ald.) Radona. 7. Gizonezko gurasoa. 9. Deitura. 12. (Ald.) Txantxa. 14. Kereila. 18. A bikoitza. 19. (Ald.) Bike, zahato barruan.

• HOROSKOPOA •

Aries Gastuak kontrolatu: aste honetan ko-txe berririk ez.

Taurus Trapu zaharrekin jazteak ez dizu onik egiten. Maritxun, behintzat, dotore.

Gemini Bihotza gero eta hotzago sentitzen baduzu, ez larritu, eguraldia da.

Cancer “Bakailau” musika dantzatzeko gogo aguantaezina sentituko duzu.

Leo Poesian atsedetik aurkitzen ez baduzu etzan ohean.

Virgo Gauak lo egiteko dira, gau-txori, ez mozkor-mozkor ibiltzeko.

Libra Aurtengo Kilometroak-en sorpresa bat izango duzu, edo bestela Nafarroa Oinez-en.

Scorpio Klasera itzultzeagatik deprimitu samar ibiliko zara, baina denok gabilta igual-tsu.

Sagitarius Dirua: krisia. Osasuna: krisia. Maitasuna: krisia. Lana: krisia.

Capricorn Amway-ko lagunen bat hurbil-tzen bazaizu, kasurik ere ez.

Aquarius Telebista gutxiago ikusi beharko zenuke, behintzat Tele-5.


Piscis Aquarius-tarrekin inkompatiblea zara: arrain gehiagi hain pezera txikian.

**‘CARFRA’ SUKALDE
ALTZARIAK
5 URTETAKO
GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
ISPILU-ATE
KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA
KANPOKO ATEAK**



Vanesa



ERAKUSKETA

Legarre pabiloia z/g

Gipuzkoa Etorbidea

Tfnoa: 79 01 92


ARRASATE

DeLonghi

marka
italiarraren
banatzaile
ofiziala


Berango
ALTZARIAK

• MANUEL AGIRREURETAREN GOMENDIOA •



Orain 15 urte inguru hasi zen Manuel Garagartzako San Migeletarako buzkentzak egiten. "Lehenago ohitura zaharra errekupe-tu nahirik ekin genion, hasieran elkartean jateko" eta orain auzoko jaietako ohitura bezala egiten dute, Jose Ramon Otamendi harakinak eta bien artean. Kipula, porrua, piper berdea eta ardiaren koipea dira osagarri nagusiak. 300 kilo egiten dituzte. "Ohitura ona eta sana da, buzkantza beroak jatea" eta horregatik gomendatzen digu Garagartzara probatzera joatea.

• KOMIKIA •



• PROGRAMAZIOA •



- 27 Astelehena**
8,8,30, 9 Berriak
9.30 Mondragol
- 28 Asteartea**
8,8,30, 9 Berriak.
9.30 "BIZIA LURREAN"
DOKUMENTALA
- 29 Asteazkena**
8,8,30, 9 Berriak
9.30 EUSKARAREN
EGOERA ARRASATEN
- 30 Osteguna**
8,8,30, 9 Berriak
9.30 LAZKO MARITXU
KAJOI
- 1 Ostirala**
8etan eta 9etan MARITXU 93
BEREZIA
- 3 Igandea**
9etan MARITXU KAJOI
9.45etan MONDRAGOL

• SOLUZIOAK •

JEROGLIKAK
Bi kasutan.
U.
Abizen. 12. Droila. 14. Auzi. 18. Aa. 19.
3. Añeta. 4. Idar. 5. Rn. 7. Aita. 9.
Bertikatik 1. Umenoko. 2. Somakor.
Azert. 20. Ordaindu.
rraila. 15. Oka. 16. Uzo. 17. Ko. 18.
Mondra. 10. Emea. 11. Bar. 13. Ma-
Horizontetik 1. Usain. 6. Ia. 8.
GURUTZEGRAMA

mokasin

Zapatak eta osagarriak

Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

LIPOESKULTURA eta ZELULOLIPOLISIA

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA


Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54

Monte taberna

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 



SUKALDE LILURAGARRIAK!

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g
ARRASATE
Tfnoa: 79 00 43
Ipeñarrieta, 5
URRETXU
Tfnoa: 72 50 75

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE
Tfnoa: 79 99 42